

**Don Manuel Santa Cruz apatzac bere adisquideai esribitu  
dien carta.**

**LILE-CO URIAN 1875. garren MARCHOABEN 31. an**

*Nere adisquide Francia-mugan daudenai.*

Aundiac izan dira nere pena ta asarrea jaquitean nere adisquide eta armetaco lagunac engañatuac izan diradela, eta aur Alfonso nasquetarien erregueari seguitzera eramanoac baliatzen dirala orretaraco bideric lotsagarri eta bajuenaz, nere icena aotan artuaz,

Esquer-gabecoa izango nintzaque aibeste cristau-catolicoc ematen dizquidaten onguinaitasun eta adisquidetasunari, desdichadua izango nintzaque orrelaco gaucic eguingo banu. ¡Ez! ez det manchatu nai mundu onetaco ecergatic nere cristau-catolicotasunaren onorea.

Lendanic adierazten diet nere Españiaco eta Francia-mugaco adisquide guztiai ez dizayotela lecuric eman traidoreai, ez dezate-la beren onorea manchatu aundinayai seguitzearequin. Ongui damutuco litzayeque; engañatzen dituzte, engañatzen dituzte. Nere gañean esaten dien guztia palsua da. ¡Etsayen alde guerra eguitera joan! Ez mundu onetaco ecergatic ere.

Uste det nere adisquide guztiac entzungo nautela. baña baldin uste ez dana, vengantzaco griñari lecu emanaz ucatzen badute aibeste balore eta leyalitasunarequin nerequin batean defendituzuten bandera, une onetatic uzten dute cristau-catolicoac izatea, uzten dute Euscaldun onac izatea, eta beragatic nere adisquideac izatea.

Jaquin bezate utzi nucla osotoro politicaco bidea eta prestatzen ari naicela celebratzeco Mezaco Sacrificio Santua.

Alfonso eta Cabreraren ordenen azpian nengoela pensatze utsarequin eguin didate bidebaguequeri andi bat, ofenditu dituzte nere sinistmenac; eta neronen ta nere adisquide Españiaco ta Francia-coen onoregatic declaratu bear det beti defenditu dedala Jaungoico, Sort-erri eta Erreguearen bandera; ez naicela secular bauldera onetatje apartatu; ez dedala beñere izan parteric chiquienic ere gure D. Carlos VII. garrenac errepresentatzen duen auzi santua-  
ren etsayaquin.

*Manuel Santa Cruz.*